

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
94n. ZENBAKIA
ZEZEILLA
OTSAILLA
1986



**SEAKUAIN'EKO TRIKU-ARRIA
ARALAR'EN**

NOEL, OLENTZARO, ERREGEAK ETA ZALDI-GOROTZA

Mateo ebanjelariak diñonez, Jesus jaio-barria zala, Mago batzuek, aztiak, etorri ziran aurrari agur egitera. Etorri ere eguzkia sortzen dan aldetik etorri ziran.

Jesus'i erregaliak eskeiñi eutsoezan urrea, intsentzua eta mirra. Balio aundiko iru gauza orreitik, erriak Magoak errege biurtu ebazan, kristau alderdian.

* * *

Gabonak eta Eguzkiaren barritzea alkarrekin doaz: Egu-berri, argi-berri da-ta. Orrekin buztartuta, Noel agertzen da Europa Iparraldeko errietan. Gizaseme zaartua eta oso ona, umeeri erregaliak ekartzen dautsezena. Zenbait tokietan Noel, Santa Klaus edo San Nikolas biurtzen dabe.

* * *

Euskaldunen artean, barriz, Olentzaro jauna dator Eguberrietan Jesus'en jaiotzaren barri emotera. Orra Olentzaro'rekin San Klaus, San Nicolas, Erregeak eta Noel.

Arritzekoa auxa da: Olen-tz-aro, Olen'en aroa dala dirudi, aur-tz-aro eta zaar-tz-aro aurren eta zaarren aroak diran lez; *Olen* eta *Noel* izki edo letra bardiñez egiten diran berbak dozuz.

Olen-tz-aro Noel-aro ete da?

* * *

Dana dala, Gabonetan Noel'ek eta Olentzaro'k, eta Epifami edo Agerkunde egunean Erregeak umetxoeri, eta baita nagusieri be, Jesus'i bezala, euren eskeintzak egiten, deutzeez.

* * *

Ona zer gertatu zan erregali orrekin etxe batean:

Bi seme, ebezan; bata oso lur-jota ebillena beti, oso pesimista.

Besteak, berriz, ez eban lurrik ikusten, beti aidean, optimista utsa. Baikorra oiñetatik burura.

Eldu zan erregalien eguna. Gabon eguna zan ala Errege eguna? Orixe ziur ez dakit. Jo dagigun aurrera. Senar-emazteak alkarrekin berbetan:

—Gure seme triste oneri gauza eder bat ipiñiko dautsagu, ia apur bat alaitzen dan.

—Zer ipiñiko?

—Nik eskumuturreko urrezko ordulari eder bat ipiñiko neuskio. Zer deritxozu, andratxo?

—Ondo dagoala ori. Orrelako pitxi eder bategaz biotza alaituko jako eta animoa gora jasoko.

—Bai, ori berori egingo dogu.

—Eta, beste txintzarriari zer?

—Edozerekin konformatzen da. Orrentzat dana da eder eta ona.

—Begira, zaldiak egiñiko gorotza daukot aundia eta zabala kortan eta berau ipiñiko deutsagu oiñetakoen ondoan.

—Probetxuren bat atarako dau, zalantzarik gabe.

—Ikusi daigun zer joka-bide ataritzen daben bakoitzak.

* * *

Gurasoek esan bezala egin eben: bateri urrezko erloju ederra eskumuturrerako eta besteari zaldi kaka-plasta aundi bat.

Etorri da goiza egunsentiaren argitara. Jaso dau batek urrezko ordularia:

—Baiña, nik orrelako gauza eder bategaz zer egin bear dot? Eta, arrapatzen ba'deuste? Eta, galtzen ba'dot? Eta, apurtutzen ba'jat? Eskolan barre egingo deuste onelako erlojuakin ikusten ba'nabe...

Akatsak eta arantzak besterik ez eutson pitxi eder arreri topau gure mutil koitaruak eta gizajoak.

Eldu da bigarren semea leiora. Zal-di-gorotza oiñetakoen ondoan:

—Zer, Oto-diñotso kaletik Peru'k-zer ekarri dautzue Erregeak?

—Ez, Olentzaro izan da.

—Eta, zer ekarri...?

—Zaldi eder bat; baiña, bertan kaka egin eta alde egin daust. Etorriko da.

BIZKAIEREAREN EUSKALTZAINDIA

AITA MAURO'REN IDAZ-LANA

Oraintsu irakurri dogu, arrituta eta pozez itzi gaitun, Aita Mauro Elizondoren idaz-lan bat DEIA aldizkarian.

Aita Mauro'ren eskuetara eldu da Arana'tar Sabin'ena dan esku-idazki bat, orain artean ezkutuan egon dana eta Mauro'ren ustez zalantza barik Sabin'ena dana. Zergaitik arritu gaituan? Sabin'ek gaurko arazoak ikusi ta bizi izan ba'lituan lez berba egiten daualako idazki orretan. Igarle baten berbak dirala esan lei. Bizkai'ko euskerearen Euskaltzaindi bat sortzeko araudia egin eban Sabin'ek. Arri-tzeko gauzea benetan.

Guztiok ezagutzen dogu Sabin'en buruan izan zan aurrerabidea, geiago edo gitxiago, baiña ukatu ezin leiken bere oiñarri-eritxi bat auxe da: Euzkadi betik asita eratu bear dala. Eta orixe bera esan bear euskereari buruz: Lenengo euskalkiak eta gero etorteko dan euskaldun guz-tien izkuntza bakarra.

* * *

EUSKALTZAINDIA

Eztabaidatzeko gauzea da izkuntzak "zaindi" edo "Akademi" bat bear daben, baiña zalantza barik ondo eratu dan eta ondo jokutzen dauan olako erakunde batek laguntza emon leikio izkuntzari, eta euskereak bear dau, gaur iñoz baiño geiago olako laguntza egokia.

Baiña emen itaun bat egin-bearrean gagoz: Laguntzen dautso Euskaltzaindiak Bizkai'ko euskereari? Eta erantzuna Bizkai'tar guztiok edo geienok emon geinke, euskaltzai-ñak eurak be bai, zintzo berba egin gura ba'lebe. Lagundu ez, kalte egin eta kalte aundia egin baiño. Eta ez euskaltzaindiak bakarrik, bere jokabideak jarraitzen dabezan beste erakunde askok be bai. Bizkaierearen egoerea larria da eta larriago biurtzen da anai euskaldunak zapaltzaille biurtu jakuzala ikusten doguean.

* * *

LURRALDE BAKOITXEAN

Euskalki bakoitxak bere euskaltzaindia bear leuke, bear dauan besteko nortasuna dauan euskaltzaindia eta beste euskalkietakoak ondo alkartuta bere nortasuna zaintzen dakiana.

Orregaitik iruditzen jakuz arrigarri esandako agiri orretan Sabin'ek agertzen dauan eginbidea ta araudia.

Baizkaitarrok gure euskaltzaindia ba'geunke, esan dodan lez bear dauan besteko nortasunagaz, besto oillar batek egingo leuskigu kukurruku. Euskaltzaindi ori sortzeko errez emongo genduke gure autarkia, ez Euskalerritik zati bat kentzeko, ez olakorik, Euskalerrria eta euskerearen aldeko ekiña bear dan lez eratzeko baiño.

* * *

EUSKERAZAINTZAREN JOKABIDEA

Euskalkien alde jokatzekotan sortu zan eta orretarako lana egiten diardu EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIAK'k. Guztiok lagundu ta indarra emon bear geunskio erakunde oneri, bai Jaurilaritza-maillan, baita beeragoko erakundeen eta erritarren maillan.

Euskeratzaintza'ren jokabidea naikoa batera dator Sabin'en araudi orragaz, batez be lurraldeetan diran *Euskarazaleak* alkatteakaz dauan artu-emona kontuan izan ezker. Bizkaiereak iñondik ezer itxarotekotan Erri-Akademi orretatik itxaron bear ko dau, baiña ezin lortu izango dauz bere elburuak, Euskerazaintza'renak esan gura dogu, laguntza geiago ez ba'dau lortzen, eta ez diru-laguntza bakarrik, diruak asko lortzen dau baiña ez dana, lege ta erakundeen laguntza be bear dau. Au esatean Euskal "Telebista" edo Ikustirratia, egunkariak, irratiak eta aldizkariak daukaguz gogoan batez be.

Guztiok nai genduke, alan uste dogu, euskerea aurrera ateratea. Elburu ori lortzeko bideetan dagoz zalantzak eta eztabaidak. Bizi dan euskerea indartzen ez ba-dogu, zelan lortu beste euskera bat aurrera ateratea?

Abertzaletasunaren eta euskalzaletasunaren izenean, bidean geldid-aldi bat egin eta azterketa-giro baten oiñarrituta lana egin-bearra ikusten da. Bear ba'da bide orretatik Sabin'ek izan eban ikuspen arrigarria ikusiko genduke geuk be, Bizkaierearen Euskaltzaindia sortu-bearra.

GALDAKANO'KO GIZONIK ZAARRENA

Ez dakit zergaitik baiña, Galdakano'n adina, urteetan oso goratutako ainbat gizon ikusiten doguz. Baia erri onetan jaio, asi ta bizi diranen artean zaarrena ezetari-ko zalantza barik, Astigarraga'tar Jon, gaitz-izenez "Txaparra" esaten dautsoena dogu, beren larogei ta amabost (95) urte aintziñatsu, Jon deunaren egunian betetua da. Eta, urte-mordo aundi ori beren bizkar-gaiñean eroan arren eta bere urte luzeatan beti lanetik bizi izan, buru argiz bizi dana.

Jon'ek euzko baserriarren jakintzaz edo filosofiaz gaiñera, ainbat irakurri ta ikusi dau eta, adimen argikoa izanik, irakurri ta ikusi dauana bere gomutan erraz sartu jako, beste edozeñek baizen argi aurrekoai azalduteko. Eta, orixegaitik geiago be, beragaz itz egitea atsegin izaten jaku, batez be gure erri onetako antziña jazotako zerbait jakin nai dogunean. Eta alan izanik, larogei ta amabost'garren urtea beteta laster solasaldi, berbaldi bat izan gonbuan beragaz itaun edo galdera batzuk egiteko:

— Jon, adizkide agurgarria, badakit 95 urte ondo beteak dozuzana, Jon Deuna'ren egune'an, zeuk lendik esanda, baiña, beste gauzatxu batzuk be jakin gura neukez erantzun nai-bai'daustazuz:

— Nun jaio zintzan eta zeintzuk errietan bizi izan zara?

— Galdakano onetako Agirre (gaur-egun Ergoyen ize-naz geiago ezagutzen dan) auzuneko Aretxabaleta base-txean jaio nintzan eta, bertan bizi izan naz beti orain urte gitxi arte, goraiño igon ezin nebalako ona erri-barrura eto-riarte.

— Eta ugaztu edo bateatu, zein eleizatan Jon?

— Goiko Andra-Mari eleiza erromazaarrea, oraindik beko Andra-Mari amaitu barik aurkitzen zalako. Ni izan ei-nitzan eleiza orretan azkenengo bateatu nintzana (orain barriz ugaztauten dabez).

— Zenbat anai-arreba izan zintzazen?

— Bost eta zaarrena neu.

— Anai-arrebatan zaarrena izanik, Jon, lanik geien egin bearko zendun ziurki, non eta zelangoa izan zan zure lana?

— Tankera askotakoa; gaztetxutatik ardi-zain, baserri-ko zeregin guztietan eta, zelan aunditu, gizondu, idi-buztarriagaz lugintzan, arrobotik arri-ekarten eta lanak

urteten eban edozein lekutan, emazte ta seme-alabak zaindu ta aintz-onaz biziko ba-ziran. Azkenengo ainbat urte-tan Firestone Hispania'n. Orduko biziera oraingoa baiño gogorragoa izan zan izan be ta.

— Zure adiñeko edo antzerakorik bizi da baten bat errian, Jon?

— Galdakano onetan jaio ta asikorik ez, gizonezkorik beintzat. Ni baiño pizkatxu bat gazteago dan emakumeren bat izan bear dau, baiña ez nago ziur. Aleginduko naz bera aurkituzten.

— Bai-ta ba-dakit, Jon, azkenengo urteotan batetik eta bestetik asko ibilli zarala erriak, Uri aundiak eta zeri-ikusirik dagoan lekuak ezagutzen, ezagutzen dozu Euzka-di guztia, España laterri'ko zati aundiak eta Europa'ren zerbait?

— Euzkadi edo Euskalerrri geiena edo garrantzitsuena bai beintzat. España'n, Madrid ta beren inguruak. Andalu-zin, uri guztiak eta katalunya'n, Barzelona ta beste uri ta erri asko Europa'n, Paris ta beste ainbat leku ikusgarri.

— Azkenez beste itaun bat Jon: zeure izen-abizenakaz baizen obeto ezagutzen zaitue errian eta ibilli zaren lekurik geienetan "Txaparra" izen-ordeaz, zetatik edo nondik datorkizu gaitz-izen ori?

— Nire aitita Zeberio'tik Galdakano'ko Bekea auzune-ra etorri zan biziten eta, pizkat txaparrotea zan ezketiño, "Txaparra" deitzen asi jakozan eta, geiago bera, nire aita eta ni bere gaits-izen orregaz ezagutzen gaitue, naita ez nire aita zana eta ez ni txaparroteak ez garan, pizkat luzengeak baiño, danok dakizuen lez.

— Ederto Jon, eskerrik asko azaldu dauskuzuzan argi-bide guztiok aitik, bada atsegin izango jakezela uste dogu ZER onen irakurleai. Zer egin bear da zu lez urte askotan da osasunez biziteko?

— Lan asko ta gogotsu egin, lizunkeri ta asmakizun zatarrak gure buru ta biotzetan lekurik euki ez dagien, gure uste apalean, gizona geien makalduten dabenak griña zitalak diralako.

Ondo dago zure agindua eta, aleginduko gara orretaxe biziten, ea zuk beste urtetan eta osasuntsu biziten geran. Jarrai kementsu Jon adizkidea.

ARALARKO ARDIAK

Unako Putzuaren inguruan dabiltz artzaiak, negua itxalsaldean pasa ondoren. Udarako Aralar mendira etorrita dagoz, garaiko larrainetara. Ardiak esnea ematen dau axuriak azi-arazteko, gaztaiak egiteko eta artzaia berbera janaritzeko. Esnearekin bakarrik ez da, ordea, ardiaren iturria agortzen; badau beste zerkirik ere beregan, illematasez gorputza estalirik dauka-ta.

Udaberriak alde egitean, udarako beroaldiak emoten dautse artzaieri ardien illeak mozteko aukera, il-beeran bada. Auzotasunak, gure artean, bere legeak beti izan oi ditu eta alkarri lagundu bear; orregaitik batu jakoz Ataungo Pellori artzai lagunak, ataundarren ardiak illez arintzeko asmotan.

Aurretik Pellok errenka zebillen Petralin ardia il dau eta, Zaldibiko erara, odolosteak egin. Odoloste zuriak ere egin nai ebazan, baiña artarako bear ziran aña arrautza ez dizkiote oilloek ipiñi; beraz, odoleste baltzakin konpromete barko dabe. Egunsentirako agertu dira lagunak eta ekin dautsoe etengabeko lanari, goraiza aundiekin ille-moltsoak osorik ebagiz, soiñeko baten antzera, abereak billutsik laga arte.

Tartean Premin betelutarrak sua biztu dau babesleku-aterpe batean eta ardia erdibi egiña gurutz batean eskegi dau suaren aurrez-aurre... Laister aragi errearen usain gozoak egan egin dau artzaian sudurretaraño.

—Naikoa dogu-diño Pellok-eta bazkaltzeko atseden artu dagigun, eguna luze joango jaku-ta.

Pertza odolkoz bete agertzen da eta andik ekin dautsoe lenengo... Koipea ikotzetik beera zein gozo! Ondoren ardiari eldu dautso bakoitzak aal eban aldetik, iztarretik edo besotik, naiz saietzetatik, azurretan eskuak eta ortzak aregietan, berbetarako astirik gabe. Korroskada ederrak ardao baltza zintzurretik beera doan bitartean.

—Gu lez bizi danik non jagok mundu zabalean...? Otsorik eta artzik ez balego, gu aiña iñortxo ere ez...!

—Nik, Pello-diñotso Lakuntzako Peruk-, otsoari baiño bildur geiago jautxeat erensugeari. Orixe bai dala bildurgarria...!

—Erensugea sorginkeria dok-erantzun dautso Premin Betelukoak-eta sorgiñik ez dala esan oi dabe Leireko abadeek.

—Bai, eurak an barruan seguru dagozalakoan-berriro ekin dautso Peruk-; baiña, nik emen ikusi nai neukezak larraiñean, gau baltzeko tximista eta trumoi artean, kaskabarra eta arriak goitik Marik bidaltzen dauskuza-

nean... Sorgiñik ez dala? Izena dauan guztia bada, eta sorgiñak izena ba-jok; baita erensugeak ere...

—Neri ere (Antonek) zarrasta aundia egiten dauste barruan sorginkeriz betetako gure gizabideak: mendiakin, euriakin, gauakin, argiakin, naiz bero, naiz otz, naiz eguzki, naiz illetargi... Auek guztiak gorputz-azalean erantsita daukague eta barruraino odoletan eta biotz-muiñetan sarturik.

—Zeiñek erabiltzen dauz Ilargi amaren aldaketa oneik? Eta, illargi barrian batez ere, eize epeletan, gaurdikoan ikusten diran an goiko zuloxo argitsu areik zer dira? Zeiñek birtuten ditu? Illargian an dabil oraindik, beree gur-sorta bizkarrean, okerra egindako agurea; ikusi ere ikusten da illargi beteko aize bigunetan... (Pellok oldozkoi).

—Sorgiñak edonun ea sorginkeria nun-nai (berriro Peruk). Leire eta Iraxekoek esango jabek nai dabena; baiña eurak an jagozak beeran, gu berriz emen goietan Izaki guztiakin bat egiñik. Gurekin aizearen epela eta aizearen ixilla, baita zalaparta eta burrundara guztiak ere; gurekin euriaren erauntsiak eta ekaitzaren txingorak; gurekin elur-maluta zuriak mara-mara txabola gailurrean kokatzen diranak; gurekin biziak eta illak ebagitzen dituen ifarraldeko aize miña... Emen sorginkeria besterik ez dago.

—Mari ez bada, nor da? (Pello ataundarra berriz ere). Mari gurea dogu. Nun bizi dan ere badakigu: leizeetako atakan agertzen da; baiña bizi, lurpeetako eremuetan bizi da. Lurrak baditu gutxienez iru bizi-leku saila: bata goietan laiñoentzako, bestea lur-gaiñean, gizakientzako eta irugarrena lurpeko eremuetan. Goikoetan eta azpikoetan ez dau gizonak zer egiñik; Marik, ordea, bai. Or ikusten dogu zeru-goietan leize batetik bestera doanean su eta argiz inguraturik illargiaren itxuran edo, asarre danean, zalaparta osoan bere zaldi-gurdian; lurrera, berriz, noiz-nai jeisten da, eza kobratzera batez ere gezurrik esaten badozu; eta lurpeko eremuetan bizi da, an dau bere egoitza beste sorgin eta deabru askorekin. Erensugea ere arpe-zuloetatik agertzen da eta leize-zuloak lurpeetako atek dozuz...

—Bai, ba, gure aitaitak esan oi zuan (Anton amezketarren txanda da oraingoa) sorgiñak denetarikoak dagozela: onak eta gaiztoak. Txindokiko Maribera ere alditan ona eta alditan gaiztoa izan oi da. Zergaitik ori? Tarteka gau gaiztoak garalako, eza kobratzen duanean lez: guzurre esaten badozu, egia izateko falta dena, kenduko dautzu. Eun ardi izan eta larogeita amar dozuzala esan dozu? Egi osorako amar ardi falta dira, orreixek kenduko dautzuz Marik, ezetik bizi bait da. Egirako falta dana ezetza da. Zenbaitatan, ordea, Mari bera ere okerra da eta Irabe

OITURAK

baserriko neskatoa arrapatu eta bere leizera eroan eban. Beia galdu zan mendian eta neska bialdu eben gurasoak bei-billa. Illunabarrean Mari agertu jakon bei gorritxo baten antzera. Isatsetik eldu eutzon neskatoak eta tximistak arturik eroan eban bere leize-zulora. Arrezkero an omen da eta atakan ikusten ei dabe bere ille-tximia urregorriko orraziakin orrazten...

—Zuek uste dozue sorgiñek eragiten dautsoela biziari, lurra bizibarriz udaberriro? Sorgiñek biurtzen dabez loreak fruitu eta igali? Beteluko Preminek.

—Gizona, nungo munduan bizi aiz? (Pellok eraso berriro) Ataunen sorgiñari sorgain esaten dautsogu, sortzea eurak zaintzen dabelako. Sor guztien gain. Ori ume batek ere ba-jakik gure artean. Beraz sortzen dan zer guztietan dago sorgiña eta sorginkeria. Ara zer entzuen neutson nere amari zazpi urte betetzeko nituala: bein Garitasoro baserriko alabea joan zan gau batez arto-zuriketara auzoko etxe batera. An barriketan egozala, sorgiñak ukatu ebazan Garitasorokoak; etxera doala, Maizpeko zubian, sorgin moltso bat agertu jakon, esanez: Ez gerala, baiña ba-gozan; Mari Petralin ez beste guztiak emen gozoan. Eta ori esanez bakoitzak ille bakar bar kendu, buru-soil itzi arte. Kontuak atera diran ala ez...

* * *

Ortan ari dirala, orra goiko malkorretik kate otsa arkaitz artean; gizona dator kateak arrastaka orkatilletatik zintzilik, kapusai urratua gañean dauala eta abarkak amantarrakin oiñetan naiko zikiñak; bizarra eta tximia orrazteke, sasien antzera naasi..

—Zer da ori? Diño arriturik Anton amezketarrak.

—Penitentzia egiten dabillen gizakia. Emen dabil Naparroako mendietan malkorretik malkorrera eta gaillurretik gaillurrera. Oker aundiren bat egiña izango dau. Lakuntzako Peru mintzatu da.

Azkeneko itza bukatzerako gerturatu jake gure gizon menditarra.

—Eguerdi on, jaunak! Goikoak emon daguzuela bere laguntza eta grazia.

—Zein Goikok, Illargiak ala besteak...?

—Neretzako illargia zerki bat da berez ez dana eta beste bateren bear dana...

—Emen giñarduan barriketan, itz-jario, sorgineiri buruz. Sorgiñak badirala sinisten al dozu zuk?

—Gai orretan sartu baiño naiago neuke nik ardi-zati bat baneu jateko...

—Artu gizona nai dozun beste eta ez egon bagira. Edan ardoa ere. Naparra da eta baltza. Onek egingo dau-

tzu odola barruan, arpegiko kolore oiek apur bat gorritzeko.

—Ardorik ez. Penitentzia egiten nabil.

—Zer da ori?

—Ibilli nabil batetik bastera, etenik gabe, kate oneik ausi eta apurtu arteko guztian.

—Ez duzu lanbide makala, orratio, orreik ausi arte emen bizi bear badozu...

—Ibilli bearko nere okerkeria parkatuko baizat...

—Atrebentziakin, eta zer okerkeria da ori? Iñoan Pello ataundarrak.

—Ara-erantzun eutson bere lagun Lakuntzako Peruk-onek erantzun baiño leen nik emango duaz Sakana baillarako barri batzuek. Erensugea Artxueta inguruan bizi da eta urtero Sakanako gizaki bat, neskatxa aal bada, eskeiñi bear izaten dautsoe janaldi baterako.

—Ori arazo baltza dok!

—Zelan arazo ori konpondu eta korapilloa askatu ez ekiela, jakin dabe Sakanakoek gizona dabillela mendietan penitentzia egiten. Eta beregana etorrira dagoz laguntza eske.

—Bai, egia da. Erantzun dio menditarrak. Ni Urbasa eta Andia mendietan nenbillen nere eginkizuna betetzen; baiña orain Aralar mendia artu dot neure egoitzarako eta erensugearen billa nabil.

—Arabeko kazketarra terebita ta tximista anketan puz, puz, putz...! Dio Pellok eskuarekin iru kiñu egiñaz.

—Zertan zabilz?



ARANTZADI'REN DOLMENA
(887 m.)

—Konjuroak egiten. Nik ez joat emen erensugerik ikusi nai. Aparta sartago kendu ansenago mendi Beriaín, sar, sar, sar...!

Pello kiñuka dabil eta Aralar menditik kanpora bota nai dau erensugea Sakana beste aldera.

—Kiñu orreik alperrikakoak dozuz-erantzun dautso Pellori-. Ni Teodosio naiz Goñi baillarakoa, etxe oneko zalduna eta bizitza latza daroat gailur oneitan baiña egin neban okerra ere benetan baltza eta latza zala...

—Esan, esan...

—Okerkeri guztiek badabe euren ondorena zuzentasunaren aurkakoa. Zuzentasunak besoak bear ditu berdiñak aldamenetara balantzarik egin barik. Zuzenean bear eta zuzentasuna galtzean balantza eginda, orduan okerra sortzen da eta gaitza egiten izakiaren aurka eta gizakiaren aurka, Goigoikoaren aurka lez. Oker ori zuzendu bear ekilibrioa besoetan barrero sortzeko...

—Bai, bai, jan egizu beste mokautxo bat, ederra dago-ta... Eraso eutson Antonek ardi-koipea ezpañetatik dario-la; ez eutson tutik entenditzen eta.

—Nik zuzentasunaren besoa lurrerañño jetxi dot eta okerkeri aundiagorik egindedana baiño, egin ezin.

—Zer arraio egin dozu, ba? —Ataundarrak barrero—. Esaiguzu bein betiko zertan dan okerkeri ori. Arranoa lez zabiltz jira-biraka aidean, ariari eldu gabe. Zatoz ardatzera eta jo emen muga.

—Gauzak urrutitik datoz eta bi itzeetan ezin. Esan dautzuet Goñiñkoa naizela, zalduna eta etxe onekoa...

—Zalduna bazara, ez zera nolanaiko etzekoa izango.

—Zaldun naizen ezkeroz, mairuak burrukatzera alde egin neban Tudela aldera.

—Tudelaraiño elduta dagoz mairuak?

—Bai, antxen dagoz, eta Ibar erritik gora pasa ez ditzeten, antxen bertan eutsi bear dautsegu. Orretan gabiltza danok alkartuta. Urte bete gerratean pasata, pozik netorren etxeruntz, nere barruan biotza kantari nabari nebala. Etxeko beroak eta etxeko maitasunak itxaron ninduen. Zoriona nekarren barruan gaitzezka. Eguraldia ez zan eder-ederra, baiña kanpoko illunak ez eustan barruko argirik itzaltzen. Nere poza illargi betearen antzekoa zan: borobil-borobilla, bete-betea.

—Eta, gero Zer?

—Goñi ballarako egira eldu nintzanean, eremuetako gizon bat agertu jatan esanez: Teodosio, zoaz lenbailen etxera; emaztea dozu ogean beste batekin. Bat-batean aldendu zan ikuskizuna. Gau illuna, illargirik gabeko gau

illuna. Laiñoak baltz. Tximist-argiak zeru-sapaiean bere santzo ikaragarriekin. Eremuetako berriemallea lurrak irentsi eban. Parte txarrekoa zan benetan, gerora ikusi nebanez nere zori gaiztorako. Sua dariola ekin neutson aldapabeeran etxerañño, ainbeste bidar zorionez beterik egin nituen bidexka areitatik. Ezpata motza eskuan nebala sartu nintzan lo-gelan eta ogean egozanak, biak il nebazan batera amorrut beterik.

—Ondo egiña. Pellok.

—Odoldutako ezpata eskuan nebala, ekin neutson berriro mendiruntz nere asarrea baretzeko. Alaz ere, nere barruan odol-egarria ez zan asetzen, burua neban irakiten, euria eta kaskabarra gora begira artzen nebazan begietan, ezpañetan, bekokian barruko beroaren lasaigarri... Egun-sentiatik arte baten azpian arkitu ninduen, lur-gaiñean aserita, ezpata alboan... zeru garbia egoan. Laiñoak eta ekaitzak alde eginda egozan eta nere barrua baketuta. Etxera biurtzeko garaia zan. Nere gurasoek eta seme-alabek erailtzearen barria jasoko eben onezkero...

—Merezi ebena amon zeuntzen. Elagi eutson Lakuntzako Peruk. Gu kanpotik gabiltzanean auskalo zertan ibiltzen diran gure emazteak. Neu ere nereakin ez najatzu geiegi piatzen...

—Ni bai, nerearekin zera eta oso-osorik piatu nintzan eta amorrut orretzek bete nindun: nik orrelako uste osoa beregan izan eta berak ni orrela iruzurtzea...

—Geienon korapilloa ortan datza-ebagi eutson Peruk: gu emen gabiltz mendirik mendi udaberri, uda eta udazken; gure emazteek barriz beetan gu gabe eta askotan geure premirik gabe, etxeko giltza eskuetan dabela eta gu beti etxetik at. Eurak nagusituta bizi dira lurra lantzen asi ziren azkeroztik eta alkartzen ez bagara gure eskubideak defenditzeko, errukigarri izango gara...

—Ixilleko alkarte bat bear dogu-diñotso Pellok.

—Sakanean-berrero Peruk-asita gagoz. Noiz-beinka, il barrian, alkar ikusten dogu emaztekien nagusitasuna salatzeke eta alkarri laguntzeko...

Eskumuturrekin ezpañetako koipea garbitu eta Antonek itz:

—Arazoa beste baterako itzi eta entzun daiogun Teodosiori bere gertakizunak agertzen.

—Argiarekin batera jatsi nintzan etxeruntz eta goiko malkorretik entzuten nebazan negar-garraxiak. Benetan esan neike, une artan malkoak katilluka edaten zituela nere senideek. Gauza ez zan gutxirako. Gerturatu nintzanean, biotza gelditu jatan konorte barik: nere emaztea ikusten neban sotinka etxe-atarian. Emaztea il ez badot, nor il dot? Arra sortu jatan barruan: nor il dot? Ekin neutson arin-aringa eta txakurra urten jatan bidera, buztana ankartean. Zer gertatu da? Esan neutsen arnas-estuke.

OITURAK

Gurasoak il dituela gabaz eta nork ez dakigula. Arritzekoa izan da txakurrak inor ez salatzea. Esagunen bat dogu anima elkor gaizto ori. Gorroto gaituenen bat...

—Gogorra egin zenduan! Eraso zion Premin Betelu-koak.

—Barruko indarrek itzi ninduen bat-batean eta belau-
nak alkar jotzen asi. Lurrera jausi nintzan, pitzatutako orma zaarra jausten dan antzera. Odoldutako ezpatak biotzaren erdia zulatu eusten. Nere errua, nere okerra, osin beltza... Malkoz betetako osiña, baltza, mendia baiño aundiago... Barkamen gabea. Emazteak, lepotik elduta, jaiki-arazi nindun negarrez. Baiña, Teodosio, gaitzen batek jo zaitu. Zer dozu? Nolatan naastu zera orrenbeste-raiño...! Sorginkeri batek galdu nau. Gaiztoa agertu jat aingeruz jantzia, aolkua eman daust, bultzatu eta osin beltzera bota nau... Nik iñuzu-iñuzu bere esanak sinistu eta esan orrein ondorenak jaso dodaz, maillaz-mailla beeko infernuetara jatsi arte... Nork aterako nau emendik...! Barkamenik ez dot, salbamenik ez dot, itxaropenik ez dot...! Bai, Teodosio, salbamena badozu eta itxaropena ere bai. Gogoratu egizu Iratxeko abadeak zer esaten dauskun: gure siniskeriak utsak zirala. Illargia ez dala Jainkoa. Beste Jaun bat dagoela gorago eta Semea bialdu dauskula bere odolez gu askatzeko. Okerrak badu zuzenerako bidea. Arrek ordaintzen dau, Semeak, gure gaiztakerietatik sortzen dan zorra. Aurretik ordainduta dago, itxaropena zearo galdu ez dagisun. Gogora egizuz orreik, Teodosio maitea, eta goazen bertan Iruñara, apezpikuarengana, gurasoak eortzi ondoren.. Eta alaxe egin genduan.

—Eta, seme ori al da Kixmi? Pello ataundarrak.

—Gure aurrekoek ala deitzen ei eutsoen Jesus Salbato-
reari eta argi aundi bat sortu omen zan arekin batera eta gure aitona batek etorkizuna ageri: Kixmi jaio da eta gureak egin dau.

—Gureak egitea, zer da? Pellok berriro eraso.

—Gurea aztikerietan sinistea izan da beti. Goikoa ez dala illargia, ezta eguzkia ere. Orreik baiño gorago beste Jaun bat dagoela eta goienean dagoen zerki orrek maite gaituala eta gure okerkeriak zuzentzeko, Semea bialdu dauskula lurrera. Orrexek emeten daust poza barruan eta nere malkoak txukatzen.

Ataundarra ez zan ixilik gelditzekoa:

—Nik uste dot, eta Ataunen danok sinisten dogu ori, aziak bearrezkoak dirala gaitzak gugandik aldentzeko, indarrak sortarazten dituelako euren kiñuz eta itz misteriosoz. Adurra sortzen dabe eta adurra bada gauza baten eta bere itxuraren artean...

—Ori ere, bear bada, ala izango da; neri, ordea, Kixmi orrek pakea dakargit barnean eta lasaitasuna biotzean. Eta, zuek ondo artuta banao ni, zueiri askeintzeko txabolarik ez dot. Koba zaarrak billa oi ditut nere atsedentoki eta egoitza. Altxuetara bidean noakizue eta bertaraten

bazeree, alkar ikusiko dogu berriro. Agur, jaunak eta esker milla.

Ango burni-zarata Teodosiok alde egin zuanean.

—Gure Sakanara ere eldu dira berri orreikiñoan La-
kuntzakoak-; baiña azतिक ez jagozak batere pozik: gure aurrekoen siniskerieri eutsi bear jakela...

—Bai baiña illargia jainkoa ez badok-iñoan Beteluko
Preminek-zergaitik gurtu bear dogu Jainko lez? Jarri dagi-
gun beste bat gorago eta segi dagigun ilberriak eta ilbeteak
ospatzen oitura dogun erara. Zer ardura jok orrek?

Jarraitu eutsoen oraindik ere apur batean, Teodosiore-
kin asitako gaiari; bereala, ordea, aspertu ziran gaiez; ez
bait ziran orretan artzantzan bezin maixu. Alaz ere, kezka
barruan euken eta bigaramonean ardiak illez arindu ondo-
ren, Altxuetara joatea erabazi eben Teodosiorekin izketa
aspertu bat egitera.

Ifar aizea sortu zan une aretan eta laiño-matasak
aldendu ebazan Andia mendiaren gibelerantz eta ortzia
garbi agertu zan. “Goiz gorri, arrats euri” diño esaera zaa-
rrak eta “arrats gorri, goiz aizetsu”; emen ez zan ez bat
eta ez bestea gertatu; beraz, eguna ondo etorriko zan,
naiz-eta Putterriko ttonttor-ttonttorra laiñoz estalita egon,
txapel baten antzera. Orrek au esan nai dau, Mari ogia
erretzen dabillega leizeko bere labea, patxara ederrean,
eta ori beti izan da agerbide ona, ez dau ekaitzik sortzen
aserre ez danean eta. Borda-atarian bertan lo egiteko ere
ez zan giro txarra, an goian izarrak kiñuka...

* * *

Goiz-sentirako itxarrik egozan. Bakoitzak bere ardiak
larraiñera bialdu eta eguerdi-osterako asi ziran Altxuetara-
ko bidean. Mendia ifar-aldeetik artu eta gaillurrera igo
ziran. Beriain mendia lukeen aurrez-aurre; atzerago Andia
eta Urbasa; eskubitan Aizkorri eta ezkerretan, an beko
zuloan, Iruñea eta emen aurrean auspez, Sakana. Atzetik,
berriz, ifar-aldeetik, an urrutian Pirenee-mendial. Ikusmira
osoa eta biribilla. Begiak zabal-zabalik ditue euren erriaren
ingurueri begira. Ikusmira zoragarria.

—Baiña, gertatzen da or? Orru ikaragarriak entzuten
asi dira or beeko zelai-gune orretan... Diño Antonek.

—Bai, bai-erantzun Peru Lakuntzakoak-an erensugea,
begira beren zulotik agertzen. Bildurgarria da benetan,
mizto luzea, ezpataren antzo, ortzez jositako agoan da-
rama.

—An Teodosio bere aurrean egurrezko gurutzea esku-
bian konjuroa egiteko. Ikaratu da, igesi doa, gurutzeak ez
dautzo laguntzarik eman eta... Pello ataundarrak.

—Segitzen dautso erensugeak eta kateetatik eldu dau-
tso, kate luzeak irentsiz... Galduta dago Teodosio.

Une aretan, bere burua galdurik ikusita, Goiñiokoak
eskuak gora jaso eta santzo egin dau:

—Mikel, Mikel gurea, salba nagizu!

Artzaiek sundituta gelditu dira begien aurrean agertzen zaien ikuskizunarekin: Mikel goiangeruak ezpataz lepoa moztu dautso erensugeari eta lepo barruan irentsita zeuden kateak zatitu. Mikelek gurutzeta dakar burugaiñean. Odolik gabe dagoz beera begira sorginkeri aren aurrean. Lakuntzako Peru da bere onera lenen etorri dana:

—Sakana libre da, Sakana libre da, erensugea akabaturta gero!

Teodosio lurrean etzanda erensugearen alboan, kapusaia odol-zipriztiñez, oiñak eta eskuak aske kateak ebagi ondoren, arnasarik bueltatu ezinda eta bere penitentziaren azkenetan. Kateak eten artekoa zan eta kateak etenda egozan... Biotz-biotzetik urten jakoz eskerrak Teodosiori, bene-benetako eskerrak Gaoiko Jaunari... Pitartean artzaiek inguratu jakoz eta euren esku aundiz bizkarra berotzen dautsoe zorionak emonez. Onela berbatu jako Peru:

—Zorionekoa zu, Teodosio, sinistu dozulako. Sinismenak ekarri dautzu salbamena. Sinismenez oiur egin dozu eta zure oiura Mikel ingerua etorri jatzu. Zorionekoa milla bider, zorionekoa milla bider...!

Izan ere Lakuntzako Peru artzaia kristautasunez kutsututa daukaze eta itz-jario biurtu jaku; besteeri izua ez jake oraindik biotz-barrendik aldendu; baiña, ori bai, Teodosiori lagundu dautsoe eskuak eta oiñak kateetatik askatzen. Ondoren Igaratzara eroan dabe, naiz-eta arek Goñira abiatu nai. Bide luze ori egiteko atsedean bat bearezko jako eta orretarako festa bat antolatzea erabagi dabe artzaiek. Beste ardi bat il etra festa ospatu. Bigaramonean, gorputza apur bat sendoturik, bialdu eben Teodosio bere Goiñiko etxera Peruk Lakuntzaraiño bidean laguntzen dautsola...

* * *

“Egia bazan, sartu dedilla kalabazan” esaten da gure artean ipuin bat esan ondoren; baita sorgiñenak eta erensugeanak diranean ere. Dana dala eta dena den ipuiñak esaten dausku Teodosio barriro zaldun gertatu zala eta bere esker ona erakusteko, arri landuz egiñiko elizatzko bat eregi ebala gertakizun onein oroigarri.

Gaurko egunez ere antxen dago Altxuetaren zabalgunean Teodosioren eliza. Zortzigarren eunkian jasoa. Polita benetan. Romaniko garbi-garbia. Ez da ipuia, istori zeatza baiño. An dago Mikel Deunaren irudia, gurutza burugaiñean duela.

Mikel Deuna Goikoari (In Excelsis) arrera ona egin outsoen Sakana osoan eta Sakanatik, oligoa bezala, zabaldu zan Aralar inguru osora, Naparro eta Gipuzkoan zear, bere jaiera Euskadiko lurraldeak bete arte.

Jaiera orrek, lenengoaren gaiñetik, beste eliza aundiagoko bat jaso eban, txikia aundiaren sabeleamñ kokaturik. Amairugarren gizaldikoa. Ederra. Erromaniko legetara makurtzen dana eta napar erregeen jaiera aitortzen dauana. Jaiera onen testigu eta lekuko ona Aralarko erretablo

zoragarria, esmaltez egiña eta Bizanziotik ekarria. Oraindik orain lapurtua, ez da geiago bere tokira biurtu, naiz-eta zati geienak berriro eskuratu agintariek.

Eliza txikian daude Teodosioren kateak erromea bakoitzak bere gorputzaren inguruan pasa oi ditunak gaitzak aldentzeko; baita burua sartu ere aldara ondoan dagoen zulo batean, Kredoa esanaz, buruko miña kentzeko.

Anton, Pello, Peru eta Preminen ondorengo artzaiak ikusi doguz Corpus-Christi egunean prozesiñorako palioa, guante zuriz estalitako atzamarrez eroaten. Kixmi onartu eben, aztiak konforme izan ez arren. Baiña, orduko eta aurreragoko kutsurik ez da galdu. Zenbait siniskeri eta oitura zaar kristautasunaren magalean eldu dira gurerañño. Triku-arriak, dolmenak, egin zituztenen semeak dozuz gaurko artzaiak, lengo mendietan bizi dira gaur ere eta lengo bizibidetik jatzen dabe gaur ere ogia.

Aralarko mendiak, bere larrainetan, millaka asko ardi janaritzen ditu, eta ez gutxi larrabei, moxal eta urde. Baiña, ez orain bakarrik, millaka urteetan baiño, gizaldietan zear. Euskalerriko biotza dogu Aralar. Maparen ardatzean dago. Neurtu egizu Aralartik Zubero-Benabarra-Lapurdira, batetik; Naparroako egaletara, bestetik; Bizkai eta Arabako lurraldeetara irugarrenez eta ikusiko dozu mendi-kate au erdi-erdian dagoela.

Ez da bakarrik geografia aldetik; baita ekonomi eta kultura aldetik ere gure erriaren ardatza zan. Ori garbi asko erakusten dauskue orain bost milla urteko trikuarriek. Proporzioz, alkarren arteko gertueraz, ugaritasunez Aralar mendia da mendi guztien artean trikuarrietan txapeldun.

1933'garren urtean irurogei baiño geiago ziran ezagunak. Arrezkero moltso aundia topa dabe. Ugaritasun onek zera esan nai dau, orduko aberastasunak emen dagozela, aberea bait zan aberastasunaren neurria. Artzaia dabillen tokian dago aberea, eta artzaien illobiak dira trikuarriak. Illobi aberatsak. Goiko larraiñetako illobiak. Itsasaldean ez dago trikuarriak, orrelako neurrian beintzat; euren illobiak arpe-zuloetan egozan, pobretasun aundian. Gerora, nekazaritza ugaritzen danean, orduan aberastasuna ibarretara jatsiko da; baiña, goikorik galdu gabe. Goikoak eutsi dautso gaurdaiño.

Trikuarriak nabarmentzen dau zer lekuetan bizi zan bertan eortzitako artzaiña. Ez goieneko tontorretan, bera-xeagoko zeliagoneetan eta larraiñetan, baiño: zortzireun metrotik millarako bitartean. Belarrik gozoena dagoen tokia; gartzairik ederrenak sortzen dauzan lekua.

Eortzeko moda berriak eldu ziran euskaldunen artera eta trikuarriak zertarako ziran aaztu jaken gure artzaiñai. Zertarako ziran ez ekien; baiña, misterioren bat gordetzen ebela, ori bai. Trikuarri edo tregoarri izenak berak ere zeredozer adierazten; baiña, beste izen bat ere ipiñi eutsoen: jentillarri. Jentillak gizandi indartsuak ziran eta goienetako besoetan eben euren egoitza; kristautasuna, berriz, erririk-erri zabaldu zan eta gero igon gaillurretara, Sakanatik Aralarrera. Gertakizun onein lekuko dogu Mikel Deunaren zortzigarren eunkiko elizatzko polita.

ANES ARRINDA

DIEGO LORENZO URKIZU, OLERKARI

Gaur ez orrenbeste, baiña leenago Durango'n ba-ziran euskal idazle errimeak, beste batzuk lo egozala be euskaraz zerbait mamintzen obenak. Onein artekoa dogu gure Diego Lorentzo Urkizu, beronen bertso batzuk dirala-ta, Izurtza'ko seme Altzola'tar Nikoles Lasalleko Anai euskal bitxi-aleak era Akesolo'tar Lino onako zezio ta matraketan maisu danak, aizepara bikaiñez egurastua.

Urkizu durangarra izan zan. Bertoko alkatetza be urteetan egin ebana. Gizon eleiz-zalea, bere idatziak erakusten daukuenez. Liburu bi osotu ebazan, bata erderaz Uribarri'ko Ama Birjiñari egindako Bederatzi-urrena ta bestea euskeraz, au da, "Liburu Birjina Santisimien Errosario Santuena". Iruña'n argitaratu zan berau, 1737'an, eta 87 orrialde ditu.

Lotsorra zan antza ta amaieran ez dau bere izen-abizenik jarten, "Durangok Uriko Deboto batek" baiño. Tabira'ko Errosarioko Amari egiten deutso liburuaren eskintza ta emen agertzen da bera nor dan, D.L.U. jarriz. Aita Akesolo'k onela: "Izurtzako seme dogun Berriotxo Anaiak, ango ingurutako bazter eta gizonen aztartzaille zoliak, or argi ikusi dau beste erderazko liburu atera ebaren izena: Diego Lorenzo Urkizu.

Liburuxka au oso arrarua da; gaur gure artean aurkitu ezin geinkena. Orain eun urte Durango'ko seme Ramon Etxezarreta'k ei eukan, baiña gero gorabera askoren ostean au be Ipar-amerikako Chicago'ko Biblioteka nausira joan zan, eta gaur an ei dago. Urteotan emen zabaldu dana beintzat andik bialdutako fotokopi da.

Bertsozkoa dogu liburu au, "Zeruko da lurreko Erregina andiaren... esklororik txikerrenak" egiña. Aita Akesolo'k onela: "Liburuak iru zati daukazala esan geinke: lenengoak Errosarioa zer dan, eta misterio bakotxean zer gogoratu eta zer ikasi bear dogun azaltzen deusku: bigarrenak, Errosarioan esaten, diran otoitzak, asierako damu-otoitzetik asita, misterio bakotxaren eskintza, eta abar; misterioak, barriz, irudiz apaindurik datoz. Irugarren zatia da bertsozkoa, misterio bakotxean kantetako bertsoak osotzen dabena" (*Karmel*, 1981-1, 62 of.).

Bertsuok zortziko nagusitan dagoz emonda. Bertsozko liburu au ezta iñoiz osorik argitaratua izan; baiña bertoko bertsoak bai. Bartolome Olaetxea'ren "Dotriña"-n datoz 1814 eta 1864'ko argitaldian beintzat, pentsamentu potok itsatsirik: "Ama Birjina Errosariokoaren kanta eder au emoten da emen, mutiltxubak eskolarik etxera datozanian, ganaduben zain soluan dagozانيا, eta aeen billa basuan dabilzانيا kantau daijen. Uxala beste kanta loi asko arima galtzaigarriak onan kendu al baleitez. Alan izan deilla bada, arren, bai".

Gaur, antxiñako idazleen zati ta liburuxka billa gabilzianok ez daigun aaztu Durango'ko euskaltzale au be. "Gure literaturatxoan lekutxo zor jako —diño Akesolo'k—, eta beste idazle zar askoren artean ez dauka zertan lotsaturik, ez kanpoko azalez, ez barruko mamiz. Irakurlea nire eretxi izango dalakoan nago" (*Ibidem*).

Bertsuok 1737'an jarriak dira. Eta emen daukazuz gaurko ortografiz, Oozeko bost misterioai dagokiezanak, euron bitarteko ta azkeneko aapaldi lauko biakaz.

— * —

LELO

Rosarioko Larrosa eder
Birjina da Ama bakarra,
bost misterio gozoz betiak
gatoz gaur kontenpletara.

I

Amudiyoak aurkitu ez eban
munduan beste lorarik
emon nai eban frutu ederra
konserbetako garbirik.
Ai alegria dirxaz betia
Zeuri jagotzun bakarrik:
zeure erraieran zeuk ikustea
Jesus maitea sorturik.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

II

Isabel zeure lenkusinia
dago mirariz beterik
bere Jaun da Jaubearen ama
bisita emoten joanik.
Saltoka dabil bera semia
oraindo jaio bagatik,
zeure ditxa da gozo andiya
adietan emon gurarik.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

III

Zein andiya zan zeure gozoa
munduan inok eztaki,
abereak bere sentietan dabe
zentzun bageak izanik.
Aingeru asko dira etorri
alkarren leian zeruti,
jaiotza onen barri alegriak
zabaletarren munduti.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

IV

Tenplura zuaz, Ama maitea,
kontentuz guztiz beterik,
ezin zinayo Jaungoikoari
presente andiyagorik.
Simeon santuak bere ditxa
ezin ondo sinisturik,
ikusi ezkeru Jesus maitea
eztauko il-arren penarik.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

V

Nok esan leike zeure goza,
zeure Semia ikusirik
legeko jakindunen artean
bera guztien nagusi.
Bera Aitaren agindubari
asaiera ori emonik,
nai dau orrelan adietan emon
zetara jakun etorri.

Leloa: *Rosarioko Larrosa eder...*

AMAIERA

Lirio ederra, zeu izan zaite
ainbat gozoren artian, errezaue dabenen anparua
orain da denpora guztian.

Esan dogu, merezi dabela puska oneik be, jaso ta zaintzea.

AITA ONAINDIA

IZKIRIMIRIAK**ITURRIGORRIKO SANKRISTAUA**

Gizon melarra zan; txikia baiña bizkorra eta berakata lez piña. Beti arin-aranga. Bein eldu jako mutiko muki zu bat beretzako enkargu bategaz. Sankristauak Anton Potxoto eban gaitz-izena eta mutillak jakin ez. Gerturatu jako onelan esanez:

—Entzun, Anton Potxo.

Asarratu da sankristaua eta asarre bizian diñotso:

—Nor naiz ni?

—Anton Potxo.

Sankristauak abotsa gogorrago:

—Nor naiz ni?

Mutilla izaturik eta apal:

—Don Anton Potxo.

Gizonak zeruraino abotsa jasoaz:

—Baiña, nor naiz ni...?

—Señor Don Anton Potxo.

Emon eutson belarrondokoakin gortu eutson mutikoari belarria betirako.

—Ez dakizu Anton Potxo gaitz-izena dala?

—Ez, jauna, gaitz-izena Txilbristo dozu.

* * *

LOS RIOS MISIORAKO ESKABIDEA

Ondarrun gertatua, uste dot.

Misiolarien eguna ospatzen eben elizean eta abadeak aldaratik:

—Gaurko eskabidea Los Rios'erako izango da.

Koru-azpiko arrantzale batek bestiari:

—Onexeri bai gustora emango deusak milla pezeta-koa, ia ibaiak bein betirako garbitzen dabezen.

MOZKORTU ALA ZER?

Jakiña da, zenbat eta negozio geiago, ainbat eta artu-emon geiago. Bazkaria emen, bazkaria an, aparia bes-tean, Pototo leporaino dabil. Lengo gabaz basoari eragin eutson neurritik kanpora eta apur bat naastu zan gauza guztiak biñaka ikusi arte:

—Au dok ederra, au, mundu osoa biñaka dabil bikiak bezela...!

* * *

Ertzaiñak geldi! esan deutsoe eta salakuntza egin.

—Mozkortuta kotxea erabiltzea arriskua da gizartera-ko. Illabete preso —diñotso Oto juezak Pototo'ri:

—Ni ez nengoan mozkortuta.

—Ezetz?

—Ez, jauna.

—Zer zeunkan ba?

—Ardau geiegi eranda; besterik, ez.

—Besterik ez?

—Ez, jauna.

—Orduan, giltzapean illebete egin orde, ogeita amar egun egingo dozuz. Besterik, ez.

ARRINDA'TAR ANES

MUSIKA

Goiria

Gizona beti izan da musika-zale. Gizonak musika izan dau beti bere pozak eta naigabeak erakusteko bidea. Bere ta bere erriaren garaipenak eta pozaldiak musikaren bidez agertu izan dauz.

Erri bakoitzak bere musika dauko. Musikak erriaren gogoia agertzen dau. Erriaren izakera. Euskalerrriak be bere musika dauko. Bere folklore. Folklore berezia. Sakona. Aberatsa. Ugaria. Musika bat erri-girorako. Musika bat eliz-girorako. Baiña beti be euzkal musika.

Euzkaldunak goi-maillan agertu izan dira beti musikan. Musikalari ospetsuak eta trebeak izan dauz Euzkalerriak. Ona batzuk: Gorriti, Eslaba, Zapirain, Goikoetxea, Azkue, Iruarizaga anaiak, Guridi, Zubizarreta, Eskudero, Bastida, Aita Donosti, Aita Olazaran. Aita Ugartetxea, Solozabal, Aranburu, Otaño, Larrauri, Aranbarri, ta abar.

Abesbatzak eta eresbatzak asko ta oso onak. Gaurko Euzkadiko Orkesta bat. Orfeon Donostiarra, Easo, Maita, Bilboko Korala, Skola Cantorum eta abar. Bardin abeslariak. Gaiarre, Mardones, Fagoaga, Laborda, Egino, Urdiain, Mungia, Astarloa, Ostiz, ta abar.

Organo-pianoan, arpan, eta biolin-txistuan eta akordeoi-jotzalleak be ainbat eta oso aipatuak: Gabiola, Guridi, Zubizarreta, Sarasate, Zabaleta, Zelaia, Anzorena, Garai, ta abar.

Euskera liturjiaren bidez elizan sartzeak on aundia egin dautso euskal musikari. Meza ederrak, mamitsuak egin dira euzkeraz. Bardin eliz-abestiak, Zirixarrez sartu dira atzerritar kutsuzko ainbat abesti be. Naizta euzkeran abestu ez dauke euzkal girorik, ez dauke euzkal doñurik.

Danok alegindu bear gara bai elizan eta bai kalean euzkal kutsua daben abestiak zabaltzen. Euzkal erria erri kantari izan da beti. Musikak erriaren gogoia agertzen dau. Erriaren berezitasuna. Erriaren izakera. Erriaren nortasuna.

Gaurko aurrerapideak ez dau ito bear musika-giroa. Musikak —Zeranteseak iñoanez— biotzak adoretu dagiz eta bizitz-naigabeak arindu. Musika jakintza guztien gaiñetik dago (Bathoben).

Musika barru-barruraño sartzen da (Sthepenuer).

Beragan musikarik ez dauan gizonak edozetariko saldukeriak eta gaiztakeriak egin daikez (Shakespeare).

Musika era-berbera da on-zuzen eta eder-zale dagiz danak (Platon).

Musikaren bidez griñak berezko atsegiña izan oi dabe (Niezche).

Musika maitasun-griña dala esan daiteke (Platon).

Eta bukatzeko bertsolaritza aitatu bear. Geure geurea dan bertsolaritza.

Gure Euskalerrriak daukon aparteko elertia. Mundu osoan bakarra seguru asko. Beti izan dira bertsolariak euskalerrian. Gaur ugari dira ta onak benetan. Zoritxarrez bertsolariak ez dabe euki gaur lereuren doia agertzeko giroa. Bertsolariak askatasun osoa bear dau bere barneko griña azaltzeko. Bartuan sentitzen dauan sua agertzeko. Tamalez ainbat eta ainbat bertsolari ixillean geratzen dira iñoiz azaldu barik. Bertsolariak aparteko trebetasuna, aparteko indarra dauko erriaren aurrean. Gida-aldeiatanda erriaren gogoia pilpila jartzen dabe. Jarraituko al'dabe gure bertsolariak euren erriaren gogoia zaintzen eta piztuten.

Politika ez dau gauza barria. Politika beti izan da munduan. Politikak beti be gora-bera aundiak izan dauz. Politika errien onerako izan da batzuetan; kalterako beste batzuetan. Gizon danak ez dabez asmo onak politika egitean. Euren eta ingurukoen onura besterik ez dabe billatzen.

POLITIKA

Goiria

Gizonak beti agertu izan dira politika-zale. Politika izan dabe bide errian eta gizartean goi-maillak igotzeko.

Politika bearrezkoa da. Naziño ta errietako buruak be politikan bidez aukeratzen dira. Politika da bide. Baiña zenbat zuzengabekeri egiten dan politika dala-ta. Zenbat azpikeri, iruzur, saldukeri, ta zapalketa! Aberria be saldu egiten da. Kutunenak be saldu egiten dira. Norberaren onura bakarrik billatu oi da.

Gizon politikoak erriaren, gizartearen eta munduaren ona ikusi bear dau. Aberriaren aurrerapide aunditasuna, ta askatasuna euki bear dauz gogoan, ez bere ta bere tarte-koen onura. Politika erria zuzentasun-aurrerapide-bake ta zorion —bidetik eroateko da. Sekula be ez alderdi baten

onura billatzeko ta besteak zapaltzeko.

Politika garai bakoitzak dauan giroan erria zuzentzeko trebetasuna da (Canovas).

Benetako politika naizta ezberdiña izan eratan, erabide ta askatasuna besterik ez da (Chateaubriand).

Zuzenbidez jokatura ta elburu ona dauan politika bakarrik da txalogarria (Dacier).

Gizonak onez eta ez indarrez norberagandu bear dirala irakasten dau politika onak (Dacier).

Politika ta adimena ez dagoz beti batera (Aita Isla).

Ona politikaren okerra: norberagan eta gaurko eginean bakarrik pentsatzea (La Bruyere).

LENIZ'KO IBARRA

Idaztitxu onen bitartez zerbait esan gura neuke ARAN oneri buruz, bai leenagoko ta bai oraingo gorabarak gogoratuz, argituz., Konterriko enda onen zear.

Lenengo idaztia izango da, leenagoko egoereari buruz eta bigarrena oraingo era ona pizka bat azalduz.

Une onetan, jakin-gura daukenez oso pozgarria da, txoko gitxi egongo dira, nai eta gauza guztiak errez-errez ez egon, bertako bizilagunak alai eta pozik ikusten diranak, lana dagolako eta aurrerapenak ikusten diralako.

NUN DAGON ARAN AU

Konterri au Gipuzkoako Errialdean dago.

Bere mugariak oneik dira: Sortaldetik Oñate, Sartaldetik Aramaio, Iparraldetik Udaltz eta Elorrio, azkenekuz Egoaldetik Kurutzearri eta Arlaban mendiak.

Konterri onen luzeera, Gatzaindik S. Prudentzioraño 25 kilometro inguru da eta zabaleran 10 Km. inguru.

Danera 250 Km. lautu. Toki onetan 55.000 bizilagun bizi dira orain gitxi-gorabera.

Leengo denboratetik onantz, ala-ta-be 1946'tik onantz gorakara aundia egin dau inguru onen bizilagunetan.

Mondragon edo Arrasate 10.000'tik 35.000 ingurura eldu da; Aretxabaleta 2.500'etik 10.000'ra, eta Eskoriatza bitik zortzira.

Ugaritasun ori etorri da, lana ugari egon dalako, ola edo egintza asko gaitu diralako.

ZAIÑA DEBA

Erreka au Leniz Ibar guztian zear doa, Gatzagaiñetik Debaraño.

Arlabanan Sortzen da, Gatzain-gain-gainean.

JAKIN-GAI bat dauka erreka onen jaioteran.

Benta-Berriko ostatua dago Arlaban gainean eta etxe onetako tellatu batek bialtzen dauz bere urak Kantauriko

itsasora, DEBA erreken bitartez, eta beste tellatuak, Zadorra'ren eta EBRO'ren bitartez Mediterraneoan.

DEBA ibaiaren luzeera 60 Km. inguru da, eta leenago 82 Argi-errota, Urtegi eta Argi emoteko etxeak eukazan. Alan diñoen zenbaketa zerrandak.

Argitasun edo zeartasun onen esan nai dau, erreka au ondo onuratu zala leenago eta orain be bai.

Aldaketa asko izan diralako, orain Errota eta Argietxeak ezeztatu edo ondatu dira.

Leenago UR garbi-garbiak Debaraño joaten ziran, baiña orain leenago errietatik asita, oso zikiñak doaz.

ASIERAKO EDESTIA

Ez da errez gure leenagoko EDESTIA zuzentzea.

Gure ARBASOAK edo asabak ez ziran idazaleak. Euren bizimodua zelakoa zan ez dabe itzi idatzita.

Gizon ospetsu batzuk kendu ezkerok. Lekaideak, eta abadeak baiño ez ziran arduratzen IDAZTE-kontuaz.

Españeko edestia ikusi ezkerok, ikusten da, Euskaldunok Laterri onen gertaldi aundi eta geienetan egon garala, eta ez atzenengoak, baizik aurrengoak baiño.

Eta onelan gauzak izanda, ez dauskue itzi, ezertxo era idatzita.

Emengo gudetan, Rekonkistan, au amaitu eta gero Ameriketan, eta ludiari bira emoten be bai eta geroago Paisas Bajos eta abar.

Audia da ain zantzu edo aztarna gitxi itzitea.

Beratzigarren mendean zeortxu diñoen edo agertzen da baiña, esateko ezer ez.

LENIZ konterri au ez da izan beti Gipuzkoako Errialdekoa.

Aldietan egon zan Arabagaz batuta, 180 urtetan; baita Bizkaieraz be eta askenez, Enrike laugarrenak, 1497'an, ipiñi eban Gipuzkoako Errialdeaz batuta.

ETXEBERRITAR ISIDOR



NON DAGO ZORIONTASUNA?

Aita Rahner agurgarria: Zoriontasuna ta zorion izatea gaiaz idatzi gura neutzun, orretaz berba egiteko bear ba'da ni norkirik egoki-ezena izan arren. Ori zeuk egiaztu al izango dozu. Naiko jauntxo biziera (burgesenena) daroat, anai-arreba batzuk daukadaz, nire aita-ama ez dagoz aldenduta ta etxea |ta| berebilla daukaguz. Atetik (kanpotik) sendi ona ta zorionsua gara. Sendi onetan, bost norki adimendun gara eta bere kideko bat naikoa aldatu da. Orain beste asmo batzukaz jarraian ibilli dabil, gauezko bizitzea daroa, erre egiten dau, ikastola truk-egin bear izan dau ta orain be aldatu bearko dauala dirudi. Ez ba'dozu igarri ondiño, norki ari neu nazela esango dautzut.

Nire aita ta ama arduraz dagoz eta arazo onen inguru minguruan dabiltz: barrukoen ikastetxera eroan galerazpenak ezarri niri; jaurti ni etxetik; beste toki batera joan geu; ori edo au; eragozpen geiago... Onerako autu-mautuak birregiten egon naz bein eta geiagotan urte bitan zear.

Ikastola "potolo" onetan-olan deituten dautsoe edonon-ikasle eredu-zkoak izan nintzan irugarren ikasturtera arte. Gero ikas-agiriak txarresten asi ziran. Asi nintzan zabarkeriz jantziten, ulea luze eta tarrapatat erabilten. "Galdukeriaren ezaugarri berarizkoa" iñoen.

Urte bi geroago, ikastetxea aldatu egin neban; baiña ikastetxe barri onetan urte bat bakarrik egin, ta urtenda bertatik beste baten billa nenbillen. Zioa? "Esaera ez egokiak ikastetxe-giro aretarako esatea" ta "ezer egin barik alperkerian beti leioetatik begira" zuzendariaren autormenez. Orain potolo zaparrote au ikastetxetik at dabil ta zoriontzaz eskutitz bat idazten diardu mundu guztiak gura izan, agurtu ta billatu ta zerbait adierazoten dauan berba orretzaz. Ainbeste norkiri iltera eragin dautson itza. Nire lagunak be zorion-billa dabiltz. "Lagunak" esan dot eta ondo esan be. Estualdietan ba-nago ta iñok ez ba'daust lagunduten, ezin leitekela da. Eurok be lar ondaturik dagoz mundu "zorionsu" onetan. Baiña ez dabiltz zorion billa, etsipenez baiño.

Orain geratzen doaz, paitar-ontzia jaso eta lobedarra artuta (batzuetan zizkatu egiten dira, baiña gitxitan). "Ni ezin pentsatu dodanean - diño - ondoen nago" eurretarik baten batek. Baiña ez da zoriona aurkitu dodalako; baka-rrik bizitzaren zentzuneza ikusten nago. Beste bat gaiso-etxera doa gitxienez amabost egunetik amabost egunera; an urdallairen garbitze bat egiten dautsoe, odol- emotea be bai ta itzi joaten, barriro etorriko dala jakin arren. Eta dotorreanean barreka dator. "Emen naukozue barriro diño"; eta batzuetan be oartxuak ezarriz: "barriro!" arrituten balitz lez. Barre egiten dau, baiña ez dau aurkitu zoriontasunik aurpegira begiratzen dautso zunean eta zure begiak beranakaz topo egiten datenean, argiro ulertzen dautsezu ustezko ontzi-galtzaille onezi bere oker bidea zana ezin eroanez eta bere eriotz-epaiketa egonez ulertzean beretzat ta niretzat orain aspaldiz ez dagoala alizaterik artzeko beste zuzen biderik.

Zoriontasuna, zorionsua izatea!... ekarri ta narratzu, bere indar ikaragarria apurtuten dauan diabru zarmagai-lua. Atsegin jat lagun-talde au zer esan gura leuken bururatu ta jakin barik berba egiten daualako. Toles-bagea ta ezin eutsia jasan leikielako. Itzi dabe gogoratzea, eta ez erabakiren bat artuta gero, eutsitea eziña dala ikusirik baiño. Eurak ba-dakie ta olan bizi dira euren burua ezerezten, asmo andi ta bakar bategaz: zoriontasuna.

Elburu oneik eurai lez niri eragiten daust igesari emoteko; iges neu nazanetik, giro-ingurua guztiz ostean itzi dot-eta 15 urte neukazala etxetik abiatu ta zentzukizun, biotz-ikara, oar-ikasle niarduan. Giza maitasunez nenbillen poz-billa. Erlijiñooren besoetara eldu naz jakiteko ori ez dala nik gura dodana. Paitarra ugari artu dot, neu lotsatu barik negar egin dagidan. Lo-bedarretara (drogetara) jaurti dot burua oldoztu pentsau barik bizi al izan naiten, ta eurretarik askatu naz billa billatzen ibilteko.

Aita Rhaner agurgarria, guzti oneitzaz itaun bat baka-rrik egin bear deutzut: Zuk ba ete dakizu erantzunik? Non dago zoriontasuna? (Norbert'ek).

(Letona'k euskeratua)

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (XII)

Len aitaturako itxasontzi biak erosle barik egozan; ta bateri (edo batzuei) Venezuela'ra eroatea bururatu jakon, an arrantzan ekiteko asmoz. Mutrikuar gazte bat, Burgaña itxasgizona jarri zan itxasontziak ara eroateko ardura-dun. Oneik itxasontziok txikiak ziran; len esan dodan lez ogei toneladatik alde andi bakoak eta berrogetamar zaldiko motorrak eukezan. Au da, gaurko arrantzako itxasontzien ondoan ezerezak. Alako itxasontzi gitxirek igaroko eben Actlantico itxaso.

Itxasontziak ara eroateko, gizonak bear ziran, tripulanteak; eta bein, Etxedoia'ra etorri zan Burgaña, mariñel billa. Arratsalde aretan etxetik alde eginda nengoan eta ez neban ikusi. Baiña ez eban ezer lortu, lenengoan beintzat. Etxedoia'n egozan mariñelai (geienak ondarrutarrak) arriskutsua iruditen jaken Ameriketarako ibillaldi ori. Ta iñok ez eutsan baietzik emon.

Ondorengo egunetan beste zer esanik ez zan Etxedoia'n. Eguraldi txarrak gertau ezkerok itxasontzi areik Venezuela'ra ezin eldu eitekezala ziñoen geienak. Baiña kontu areik ondo ekiazan bat beste eretxikoa zan. Mundakar itxasgizon zar batek, Arostegi'k, Ameriketara osteras asko egindakoa bera, ez eban zailla ikusten itxasontzi areintzat itxasoko ibillaldia. Bere ustez, txarrena, Ecuador'a igarotean arkituko eben beroa izango zan. Baiña ori bere asko arinduko ebela ertz zabaleko kapeluak buruan eroanda.

Itxasgizon zar aren esanak eraginda-edo, ondarrutan gazte bi prest jarri ziran: Bedialauneta'tar Jose ta Beredo'tar Pedro. Lenengoa, gudeari iges egitearren leoiaren aoan bere sartuko zan. Lengoakaz aspertuta egoan; ba-ekian gudea zer zan. Bigarrena, edozetarako gertu egoana, abenturarako bildur bakoa. Beste ondarrutar bat bere jarri zan Venezuela'ra joateko: Zabaleta'tar Jose, Jose-txikixe desizenez, txoperra bizibidez. Au ez egoan Etxedoia'n Baiona'n baiño. Ezkondua zan baiña gaztea.

Itxasora urten eben baiño bi edo iru egun lenago, neuk bere ikusi nituan itxasontzi areik Baiona'ko ibaian. Trepetxuz beteta egozan; oiñik nun ipiñi ez egoan arein kubiertan. Dana zan bidoia ta trastea; bateko ura ta besteko oriu. Irratia bere jarri eutsoela ta nago. Irratia eroatea gauza andia zan aldi aretan.

Beste kezka bat bere ba-euken itxasontzi areitakoak. Franco'ren aurka ibillitakoak ziran eta España'ko ingurutik igarotean atxillotuko ete zituen bildur ziran.

Ta ixilka urten eben gau baten. Baiña iñok ez eutsen gatxik egin, bakean itxi eutseen. Galizia inguruan eguraldi txarrakaz burukatu bearra izan ebela entzun neban. Gero Dacar'en, sarreran, ontzi batek ondoa jo ta txarto ibilli zirala jakin genduan. Dacar zan Baiona'tik urtenda liorra jo bear eben lenengo erria. Beste okerrik izan ebenik ez genduan jakin.

Bidean joiazala asi zan bigarren guda nagusia.

Geu bere Ameriketara laster joango giñan itxurea egoan. Etxedoia'ko iñori ez eta Venezuela'tik eskutitz bat eldu jatan, ango Inmigratio Batzak idatzita. An sartzeko legeak eskatzen eban dirua ordainde bearretik aske izten ninduela ta ango konsul Paris'en zan Santos abizeneko bategaz artu-emonean asteko esaten eusten. Itxurea zanez, arrain lantegietako nire lana gogokoa eben, arraiña kontserban ipinten ekien gizonen premiñan egozan. Ta bereala idatzi neutsan Santos ari baiña ez neban izan erantzunik.

Beste aldetik, Euskal Gobernuak bialtzen zituan expeditziñoietan urrengoan joateko itxaropena neukan. Endara'n izan ziran ondarrutarrak an jakin ebenez, urrengo expeditziñoian ziur joian ondarrutarra, Etxaburu zan.

Ta alan idatzi neban etxera. Ameriketara niñoiala ta itxasontzian sartzeko nengoanean idatziko neutsen tarjeta bitartez ziur jakingo ebela joaten banintzan.

Olakorik! Geu lako ama-zuloak bere etxetik kanpora iru-lau urte eginda, aztu sendiagaz! Niri orduan bardin eustan etxera biurtu edo Pekin'era joan.

Guda aurreko azken egun areitan, ziur, bake denporako azken igandea izango zan, Baigorri'n izan giñan Etxedoia'ko abeslari ta dantzari taldeak. Ogetasei urte nituan, orduantxe eginda ta egun aretan jantzi neban lenengo aldiz korbatea. An Baigorri'n itxura onean agertu bear giñala ta jaztea obe zala esan eusten. Ta alantxe jantzi neban.

Danok geukan gudearen kezkea, geuk eta bertakoak, baiña bakearen ederra azkenengo unera arte gondu edo aprobetxau nai izan genduan eta kale ta bazter guztietara

GUDA-ALDIA

poza ta alaitasuna zabalduaz egun ederra igaro genduan eta igaro eragin geuntsen baigorritarrai.

Atano III'ak trinketeko txapela irabazi eutsan Arze'ren ostatu etxean jan genduala uste dot. Beintzat, gomutatzen naz an egon giñana. Arratsaldeko enparantzako jaietan, gure jardunaz gaiñera, eskuzko pelota jokoa jokatu zan. Bidasoa andiko orduko pelotaririk onenak ziran. Euren artean, abade bat; jakiña, abade jantzita, sotana ta guzti. Mutil txikien aldekoa edo gogokoa bera abadea zan, onek egiten zituan tantoetan ataraten eben zarata ta txaloak erakusten ebenez.

Ta len esan dodan legez, egun ederra igarota biurtu giñan etxera.

BIGARREN GUDA NAGUSIA

Egun aretatik aurrera laster lertu bear zan gudea baiño beste buruasterik ez geunkan.

Ta iru edo lau egunera, bazkal ostean jardiñean jarrita gengozala, "dinbi-danba" asi zan elizako kanpaia. Lenengo danbadarako, guda kanpaia zalakoan jarri giñan eta alantxe zan. Gure auzoan egoan etxe bakarreko andreak negarrez urten eban etxetik zer ete zan jakin naian.

Munduko goraberatan ain garrantzi andia eukiko eban gudearen asierea zan. Zenbat odol ixurtze ta zenbat negar eragin bear ete eban munduan, ete zelako aldakuntzak! Ta gutzat bere, zer eta ekarren!

Alan bere ez giñan ikaratu, ziur-ziur itxaroten genduan da. Alanbearrari iges egiterik ez geunkala ikusten genduan. Aldi txarrean jaiot giñala esaten genduan, munduan gudarik gogorrenak ziran denporetan.

Baiña munduan izan ete da bada aldirik guda barik?

Guda kanpaia jo ebanetik laster, an beratxoago soloa eukan baserritar gizon gazte bat zaldi gaiñean etorri jakun, biaramonean gudara joan bear zala ta ea lurretik patatea ataraten lagunduko geuntsan esaten. Bereala iru-lau gazte jagi giñan eta solora lagundu geuntsan.

Gizajoak ez eukan berbetarako gogo andirik; erratsalde guztian ez euskun berba batik egin. Geu bere ez giñan ausartu berari ezer esaten. Ezin geinkean asmau aren gogoko izan eitekean berbarik.

Oraindik ez zala gudarik asi, urrengo eguneko izparingian jakin genduan. Kanpaiaren deia mobilizaziñoirako zan. Bardin zan; mobilizaziñoian ikusi eban jendeak gudearen asierea. Andik egun bat edo bira Prantzia'k eta Ingalaterra'k gudea emon eutsoen Alemania'ri.

Baiña Alemania'k (eta Errusia'k be bai) Polonia men-deratzen ziarduan gudearen lenengo asteetan ez egoan gudarik Prantzia'n. Ta gudea a baiño txarragoa izan ezik

ez egoan zetan estutu ta bake aldian legez, nasai bizi giñan. Baten, beste askotan legez, igarira joan giñan presara; ta ur otsean alkarrei ezin entzunda egoten giñan eta iñok entzungo ez euskulakoan, abestuten eta zarataka ibilli giñan. Baiña nunbaitetik entzun eben erabilli genduan gangarkeria ta kejea egon zan. Ez giñan bereala oker berean jausiko, geure gaiñera zigorrik etorri ez eitean bere.

Adiñean aurrera joiazan gizon bi errira etorri ziran, ixilleko ertzaiñak-edo; lenago aitatu dodan bizkaitar agure a atxillotu ta España'ra bialdu ebenak. Sekula gugaz ez ziran sartu. Bakarrik, illuntzean zubira ez joateko esan euskun. Beste eragozpenik ez genduan izan.

Salbakondutua bear zan erritik urteteko. Etxedoia'koak baimen orren billa joateko, gure zuzendariaren baimena bear genduan, alkatea ta biak alantxe konpondu ziran da.

Egun areitan ondarrutar bat il zan Azparren'en; Ondarru'ko ziñegotzia zan Ikaita Barri'ko Guenaga'tar Tomas. Erritar guztiok bere illetara joatea erabagi genduan; baiña Etxedoia'ko zuzendariak, aldi aretan ez egoala ondo ainbeste lagun batera-bestera ibiltea ta danon ize- nean bi edo iru joateko baimena ekarri eban. Orduan ondarrutar batzuk alkatearengana joan ziran eta guztiok joan geintzean baimena lortu eben. Gure zuzendariaren ixillik egin ziran gora-bera oneik eta goizean bera lo egoala ixil-ixillik urten genduan Etxedoia'tik.

Gure jokabidea txarto artu eban zuzendariak eta Endara bidez zigorra izan genduan. Lan batzuk eragin euskuzan; eurretatik bat komuneko loiak artzen zituan askea ustutzea. Etxedoia'ko ur zikin ta kaka guztiak artzen zituan aska andia egoan etxe ondoan eta an egin genduan urte inguruan bi edo iru bidar ustu bearra egon zan. Zulo andia egin baratzean eta baldetan artu ta ara jaurtiten genduan. Ez zan egoten usain gozorik an inguruan!

Guri, lenago be urten euskun loteria arek, baiña arei pilotoai-ta, olako lan zikiña emotea zail egiten jakon zuzendariari ta ederto etorri jakon gure utsa, gu entzun-txarrekoak izatea. Ta geuk egin genduan barriro bere.

Zer zigor geunkan zuzendariak jakin eragin euskunean Endara'ra idatzi genduan. Nik baiño idazkera apaiñagoa eukala ta nik esan eta Azpiri'tar Joakiñ'ek idatzi eban. Danok izenpetu genduan. Baiña izkitik ezagutu eben nok idatzi eban eta Azpiri'k artu eban erantzuna. Ta erantzuna auxa zan:

Auzia obeto aztertuko zala baiña lenengo zuzendariaren zigorra bete egin bear zala.

Ez zan eziñekoa gutzat zigor a betetea, baiña zuzendariagaz artazi jarri giñan eta alan edo olan aurka egin nai geuntsan.

Lenago zuzendariagaz ondoen konpontzen ziranak ondarrutarrak ziran (ni ez nintzan ibiltzen ondarrutarra-

kaz edo ondarrutarren aldran eta ez neuken artu-emonik zuzendariagaz) eta arrezkero txakur ta katu ebiltzan.

Jakiña, ez geunkan errezoirik; gudatean ezer okerrik jazo ez eitean gure ardurea ebanak danon izenean bi edo iru bakarrik illetara joan nai izatea burubide ona zan. Baiña gu gazte zoroak olakorik ez genduan pentsaten. Gaiñera, askotan besteai jarraitzen dautsegu ondo ez dan gauzetan be, besteen aurrean txarto ez geratzearren. Niri neuri, beintzat, alan jazo jatan.

Guenaga'tar Tomas'en illobiratzea eginda an kanposantuan ondarrutar pilloa alkartu giñan; geure artean lekaime bat egoan, Badiola Etxaburu'tar Maritxu, Kurutzetako Alabea. Ba-ziran urte batzuk Azparren'en egoala; ta lekaime egoala bere amar-amabiren bar urte izan eitekezan. Berak, ni ez beste ondarrutar guztiak ezagutzen zituan, baiña nik bai bera ta ziur, ango beste geienak baiño lenagotik. Ondarrutarrak, nire aldean asko ibiltzen ziran batera-bestera ta an erritar bat lekaime egoala nunbait jakinda bera ikustera joango ziran kontixu ta alan alkar ezagutuko eben.

Ainbeste lagunen artean txandarik ezin artuta batek au ta besteak ori, amaibako jarduna egoan. Ni atze samar nengoan, ixillik. Ta alako baten, ea ni bere ondarrutarra nintzan itauna egin eban lekaimeak. Nik, orduan, baietz, Ezekiel Txikia'ren semea nintzala. "Aitarenka" asi zan ori entzun ebanean; senideak giñan. Nik ba-nekian ori. Bere ama Urrufiña ta nire aitaren aita anai-arrebak ziran; nire aita ta bera lekaimea, lengusuak. Ta lengusuak baiño geiango zirala bere esango neuke. Ia etxeko seme lez izan zan gure aita arenean gaztetan. Euren itxasontziko lemazain izan zala eta soldautzatik aske geratzeko ordaindu bear zana lekaimearen amak ordaindu edo aurreratu eutsala, asko lenagotik entzundako kontua zan.

Beraz, ni nor nintzan jakin ebanean lekaime arek artu eban arritasuna andia izan zan.

Azparren'en beste bi edo iru ondarrutar bere bizi ziran; gudeari igesik joandako urtetsuak. Euren artean Ondarru'ko elizako abade Don Ramon Zenarruzabeitia. Jaiotzez Zenarruza'koa zan (Ziarrotza'koa). Laster Ameriketara joateko ustea geunkan eta ori izan zan beragaz egon giñaneko jarduna.

Antxe gengozala, gutzat txarra zan barria jakin genduan. Ez dakit zer dala-ta batek urrutizkiñez berba egin eban ez dakit nora, ta gu Ameriketara eroango ginduzan itxasontziak atzeratu egin ebala urteerea esan eutsan. Ez zan errez izango ordutik aurrera itxasontziak jendez beteta Ameriketara urtetea.

Bein gudea asi ta aste batzuk igaro ziranean, etxera begira asi zen jendea. Ameriketara joaterik ez egoan; amaitu ziran ara joateak. Prantzia'n ez egoan ezer onik iñorentzat. Beraz etxera biurtzea izango zan onena. Baiña ona etortek bere kontuak eukazan; emen sartzean geienok atxillotuak izango giñana ba-genkian. Alan bere lan-tzean bat etorten asi ziran.

Bein, Don Manuel Calderón, Franco'ren aldeko itxas-tar gudaria joan zan ara gazte billa. Guztiz ezaguna da Calderon Gipuzkoa'ko itxas errietan eta baita Ondarru'n bere soldautzan beragaz egonda egozalako asko. Nik, Ondarru'n ezagutu neban 1926'ko estropadak zirala ta. Orduan gure errian dana zan saltoa ta dantzea ta ojua; ta neskatillai besotik elduta makiñabat salto egin zituan musika otsean kalerik-kale.

Calderon ori Cambo'ra etorri zan eta ondarrutarrak deitu eutsen eta an joan ziran. Etxera iñok etorri nai baeban bera jarriko zala arduradun eta ezer okerrik izango eben bildur barik joan eitekezala esan ei eutsen. Iñor ez eban zuritu; iñok ez eutsan baietzik emon.

Baiña andik laster, bat biurtu zan etxera.

KAMINAZPI

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kalean (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

BILBO'TAR ABESLARIA

IZAEREA

Ondarrutarra aita, Enkarterrikoa ama, Agirre'tar Balendin benetako auskotarra dogu, beste askoren antzera bere errian igarle ezin izen dana.

Gudaren ondorenez, Ciudad Real'en jaio zan, orain berrogei urte gitxi gorabera. Asko ibilten da munduan zear, eta igarten jako: Izkuntza asko jakitearen ostean eta aundiki-itxuraz, sentikorra da, ertilariai dagokienez. Bere umetako artzain-bizitza, geroko deia eta beranduko ikasketak eta arin aurrera egin-bearra, bere izaeran agiri dira. Zerbait itxurazko egiña izan arren, bere jokerea lerdena da eta negar egiteraiño samurtzeko gauza, Bilbo'n abesteko areea emoten dautsen bere lagun onai eskerra agertzean.

* * *

ABESLARITZA

Agirre'tar Balendin abots-zoli edo tenorra, gizabetea da 1,90 luze, ez lodia, Callas'ek esaterako andra abesgoren edo sopranoen artean abots onak ikusgai ez onekoa daroa.

Lau urte York Barrian egin ondoren etorri da bere antziñako ames bat betetera: Bilbo'n, bere urian, abestu.

– Zergaitik joan ziñan Laterri Alkartuetara?

– Esango dautzuet zergaitik. Lurralde onetan ertilariak iru urtenbide daukozelako: Lurra, itxasoa ta eguratsa. Eta aik gaitxena aukeratu neban, amengoa eziña zalako. Egazkiña artu neban ba, eta zutunik agertu nintzan, eskerak Iberduero'ri urte birako ikas-saria emon eustalako. Laterri Alkartuetan gorriak ikusi bear izan dodaz, obeto esateko, bizitzaren margo guztiak. Ikusgarririk onenak, iruditu-eziñekoak, jakintzarik gorena.., norgeiagoka bizi dan uri baten aurrera egiteko jokera sendoa ta kemena bear-bearrekoak dira. Eta Laterri orreitan azterketarik onenak egin eta gaillendu al izatea, niri orain jazo jatan lez, ertilari batek irabazi leiken saririk onena da.

* * *

IKASKETAK

Balendin'ek arin igon eban York Barrian, beste batzuk alako ondoren baten billa alperrik ibilten ba'dira be.

Sendi apal baten sei seme-alaben artean zarrena eta artzaila izan arren antzoki biribillean eta zine-tokian antzerki-lan gaitxak antzestu ebazan, baiña berati abestea jakok atsegin. Onelan diño berak aundi-giroz: "Nire lenengo entzule ta ikusleak ardiak eta mendiak izan ziran".

– Noiz asi zenduzan abeslari-ikasketak?

– 1978n. urtean, ogei ta amabi urtekoa nintzala, Joakin Atxukarro pianu-jotzaille ospetsua zuzendari zala.

Arrezkero, umetatik asi-bearreko erraldoiaren oinkadaz egin bear izan neban bidea. Abeslarien lanbidea milloidunena dala ez aitzu. Abotsa eziteko ta eratzeko asti aundiak eta diru asko bear dira. Madrid'era joan nintzan, Abesti-Ikastegi Nagusira, eta emendik aurrera etorri ziran zeingeiagoak: Toulouse'koan azkenerako aukeratuen artean geratu nintzan eta 1979'ko Abeslari onenari emoten jakon "Vinas" saria irabazi neban. Gero Txile'n España'ren ordezkari izan nintzan eta Laterri Alkartuetara joan nintzan andik, baiña lenago Bizkaia'n eta Madrid'en egin nebazan abestaldi batzuk.

AURRERA SENDO

Balendin izan dogu York Barri'ko Patrik Deunaren Gotzain-Eleizan ebestu eban lenengo euskotarra eta irugarren espantarra, Plazido Domingo ta Jose Carreras'en urrango.

N. Y. Times'eko idazle dan aztertzaillearen erizpen ederraz, Carneghie Hall'en ekin dau eta oraintsu abestaldi batzuk izan dauz Ameriketako uri ta erri askotan: Utah, Las Vegas, Los Angeles, Washington...

– Zure ekiñaldiai buruz idatzi diran eritxien artean, zein da pozik aundiena emon dautzuna?

– Antxiña ez dala, New Jersey'ko izparringi batek auxe esan eban nitzaz: "Egizko eder-ableslari (Belcantista) eta gauza ederren abeslari da, sedazko abotsa, abots-lerro ausi-eziña dauko". Onelako gorespenak egozpenezko bide onetan aurrera egiteko kemena emoten dauste. Esaterako, Etxe Zuria (Casa Blanca)'ra joateko deia daukat eta azkenez eresmotza irartea erabagiko dot. Alfredo Kraus'ek esan eustazan berba oneik ezin neikez aitzu: Or daukazu zure abotsa, abesti-sorta bat aukeratu egizu ta aurrera.

– Zer esan gura dozu Alfredo Kraus'eri buruz?

– Opera-munduan nortasunik aundiena berak dauko. Atsegin jat bere abotsa eta abotsa aterateko ereak ikaratu egiten nau, bere trebe-bidea akats-bakoa da eta nik ori ikasteko ekiñaldiak egiten dodaz.

– Zergaitik abesten dabe ZIGOR operea Bilbo'n atzeritarrak?

– Txo, nik politikeri iguingarririk ez dot gura aitatu. Au bakarrik esan neike Eusko Jaurkaritzatik ikaste-sari dodanez, jarraitu dagidan beste urte betean neure ikasketak York Barrian egiten, minduten naz beste euskalerriko ertilari aundiak lez, emengo baltzuburuen oroitezaz eta biotz oztasunaz. Zergaitik? Itaundu egiozue eurai. Dana dala, lan egin bear dogun ezkerro, oraingoz euskotarrak egin bearko dogu aberria, esaten danez. Ni, euskotarra, munduan zear nabil geure kultura besteena baiño ez txarrragoa eta ez obeagoa dana zabaltzen. Gaiñera ames eder bat daukat: Ameriketara lenengoz Euskal Opera bat abesteko.

EGILUZE'k

IRU EKINTZA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k dauan elburu bakarra euskerearen alde eta zeatzago esanda, Bizkai'ko euskerearen alde lan egitea da, guztiok gogoan daukagunez.

Orretarako gogoia, diru-laguntza eta irudimena bear da. Ez gitxien irudimena, edo asmamena, ekintzak asmatzeko eta eratzeko. Izan be ez da naikoa "nik euskereari lagundu nai dausat"edo "euskerearen alde lan egin gura dot" esatea. Lan ori nondik nora eta zelan egin asmau bear da.

Euskerazaleak Alkarteak iru ekintza daukoz eskuetan egun oneitan: Komik'en edo ipuin irudituen sariketea, Ipuin-Sariketea eta Bizkaieraren Astea.

* * *

KOMIK'EN SARIKETEAK

Irudi-bideak eta ikus-bideak azpiratuta daukagu gaurko gizona. Ba-dau orretan bere eragiña, zalantza barik, ikustirradiak, baita irakaskintzan ugari erabilten diran entzun-ikus-bideak be. Eta euskereari indarra emoteko, bide ori artzea erabagi genduan igaz, ipuiñen apaingarrien sariketa aregaz eta aurten umeentzako komik'en sariketa onegaz. Arlo onetan KILI KILI aldizkariak eta bere Zuzendari dan Retolaza jaunak be izan dabe euren eragiña.

Ez da alboratu bearko irudi orreine bidez adimena bizhortzea be, irudimen utsak daroan gizona, edo adimenaren argitasun barik sentipenak daroen gizona nekez joango dalako goi-maillako elburuetara.

Irakurleak idazten dogun au irakurten dauanerako, Komik'en sariketa onen ondorenak ezagunak izango dira. Ipuiñen Apaingarrien Txapelketa arek ondoren ederra izan eban ezker, gaurko sariketa onek be antzeko elburua lortuko dauala uste dogu: Marralari euskalzaleak alkartu arlo onetan lan egiteko.

* * *

IPUIN SARIKETA

Ekintza au ez da aurtengoa, urte batzuk dira asi zala eta urtero beteten dau bere egitekoa.

Aurten atzeratu egin dogu. Beste urteetan orrillerako izaten zan, baiña sasoi onetan antzeko beste sariketa batzuk izaten dirala ikusirik, eta Sariketa orretan maiko diranak be eritxi ori eskiñi ebela jakinda, udagoienerako itzi dogu aurten asmapen au betetea.

* * *

BIZKAIEREAREN ASTEA

Irugarren ekiñaldi onek be bere kondairatxua dauko. Urte batzuk dirala, euskal-aste bat egin genduan, baiña gero illunaldi bat izan zan eta urte bi edo irutan ez zan ezer egin.

Iru urte dira **BIZKAIEREAREN ASTEA** egiteko erabagia artu zala eta aurten irugarrenez egingo dogu.

Bost itzaldi izaten dira guztiz, astelenetik barikura eta Eskolapioen Ikastetxean. Gaiak Bizkai'ko euskerearen girokoak izaten dira. Orain-arteko itzaldiak gogoangarriak aurkitu doguz eta geienak ZER aldizkarian agertu dira.

Bear ba'da irakurleak jakin-gura bat izangu dabe. Entzuleak ugari izaten ete diran. Baietz esan bear, baiña baietz neurri baten barruan, berbaldiak non izaten diran eta gure euskaldunak oso lanpetuta bizi dirala aitzu barik. Itzaldi batzutan 100 entzuletik gora izaten dira eta egun beratan antzeko beste itzaldiren bat edo ostikoketa-jokoa eta olako zerbait izan ezker, entzuleen kopurua iñoz 50'era be jatsiten da.

Orrez gaiñera betiko lanak bete bear izaten dauz gure Alkarteak: Euskerea irakastea, emen beti izan dira 200 ikasletik gora, liburuak argitaratzea, emen urtero lenengo edo bigarrenez libururen batzuk argitaratzen dira, baita urtero Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntzaz argitaratzen dan Bizkaierazko Egutegia, onek be naikoa lan emeten dau, eta ZER berau illero argitaratzea.

Ekintza guzti onein eta gure diru-kontuen barria idazlan au argitaratu eta irakurleen eskuetara eldu baiño lenago egiña izango dan gure Batzar Nagusian emongo da eta urrengo ZER onetan emongo dira barriak.

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarría Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.